



MANIFESTUA 2019

AGNH EGUNA ESPAINIAN

15 urte baino gehiago daramatzagu Gobernu ezberdinei gure eskubideak kontutan hartu eta neurriak har ditzaten eskatuz, eta ezin izan dugu erantzun positiborik jaso orain arte. Alderantziz, gu bazterten gaituzten ekintzak ikusi ditugu eta lortu ahal izan ditugun aurrerapauso txikiak ezerezean geratu dira.

Gustuko izan hala ez, AGNH-a gure haur eta gazteen %5-aren baitan dago, baita helduen % 2-3-an ere eta datu honek argi uzten du diagnostikoaren kronikotasuna. Ezin dugu onartu gure bizi-kalitatea kaltetuz, gu alde batera utzi eta hobekuntzarako neurriak ez hartzea, honek gure familia, eskola, lantoki eta inguru sozialean duen eraginarekin.

AGNH-a ez da soilik diagnostikoa duen pertsonarengan eragiten duen nahasmen hutsa. Bere inguru GUZTIARI eragiten dio eta esku-hartze egoki batek norberaren etorkizunerako espektatibak hobetzeaz gain, ingurukoei eragindako kalteak, kostu ekonomiko eta emozionalak ekidin ditzake.

Gure ahaleginak kontutan ez hartzeak AGNH-a duen hainbat pertsonen egoera okertzea dakar eta prozesu honetan, azkenean garrantzi gutxien duen arazoa arrakasta akademikoa da. Askoz garrantzitsuagoa da beharrezkoak dituzten baliabideak eskura ez dituztelako pertsona hauek pairatzen duten gainbehera pertsonala. Baliabide hauek gizatalde handi batentzat eskura ezinak dira eta zailtasun guztiei BAKARRIK aurre egin behar diete. Pertsonak hauek arrisku handia dute porrot eskolarra pairatzeko, drogen menpean erortzeko, istripu gehiago izateko, oreka pertsonala galtzeko, sozialki baztertuak izateko, familia-arterko indarkeriara jotzeko, gaixotasun mentalak izateko, delinkuentzian erortzeko...

Ondorio hauek baliabide eta esku-hartze goiztiar baten faltaren emaitzak dira, baina askoz leunagoak izango liratekeela badakigu Gobernuren aldetik behar dugun babesa jasoko bagenu. Babes hori eskatzen dugu eta badakigu legeak babesten gaituela.

- Politikarien kontzientziario eta babes argia nahi dugu, lau urtetik behin gure babesa eskatzen duten horiena, hain zuzen ere.
- Haien hauteskunde kanpainen gure eskakizunekiko konpromiso argi bat ikusi nahi dugu.
- Haien hauteskunde programetan dokumentu honetan agertzen diren eskakizunak aurrera eramateko asmo irmoa ikusi nahi dugu.
- Gobernua osatu ostean, gurekin hitzordu bat izateko konpromisoa lortu nahi dugu, gaia irakaskuntza nahi osasun ikuspuntutik aztertzeko.



Hauteskunde programetan txertatu eta gerora landu nahi ditugun eskakizunak hauek dira:

ESKATZEN DUGU:

1-. Alderdi politikoan hauteskunde programetan AGNH-ri dagozkion gure eskakizunak txertatzea:

1.1. Behar bereziak dituzten ikasleen laguntzak bideratzen dituen aginduaren eraldaketa AGNH-a desgaitasun eta/edo portaera nahasmenetik bereiziz.

1.2. Tratamendu kroniko izaera onartzea eta “puntu beltz” bezala kontsideratzea.

1.3. AGNH duten helduentzat tratamenduaren kopagoa ziurtatzea.

1.4. AGNH-aren Protokolo Nazionala (diagnostiko eta atentzio prozedurak, helduak barne)

1.5. Estatu mailako zabalkunde programa, nahasmen honi buruz demostratuta dauden ebidentzia zientifikoak azpimarratuz.

2. Gobernua osatu ostean, hitzordua gure eskaeren inguruan lan egiteko.

15 urtetan zehar gure beharrak errefusatuak izan dira eta ezezkoak jaso ditugu behin eta berriz. AGNH duten hainbat pertsonak ez dute bidezko trataturik jaso eta ondorioak beraien, euren familiek eta gizarteak pairatzen dituzte.

AGNH-AK ESISTITZEN DU, AGNH DUGUNOK ESISTITZEN GARA.

**INSTITUZIO ETA GIZARTEAREN ALDETIK BIDEZKO TRATU BAT MEREZI DUGU ETA
HORRETARAKO ESKUBIDE GUZTIA DUGU.**

ARRETA ETA ALDAKETAK ORAIN NAHI DITUGU!